

MEWANDO

Middle East Without Wars And Oppressions - www.mewando.org

◆ Palestinaren Okupazioaren Aurkako Estatuko Sareko kidea da Mewando ◆



LANUF

Bilboko ekimena, Palestinan justizia lortzeko koordinazio gunea

Estatu Batuetako Annapolis hirian hiru presidente elkartu omen ziren palestinaren eta israeldarren arteko bake bidean aurrera egiteko. Azken bake konferentzia hori, aurretik egindako bere antzeko

beste asko bezala, antzezlan kaxkar bat baino ez da izan, erdipurdiko aktore batzuek taularatua eta bere amaiera txarraren kariatz nazioartearen txistuak eta gizarte zibilaren erantzun gogorra baizik irabazi ez

dituena. Bilboko ekimenak gune bat eskaini nahi dio Palestinako garbiketa etnikoa hasi zenetik 60 urte betetzen diren une honetan Palestinak bizi duen egoera salatzeko abiatu den ekimenari.

Israelgo lehen ministroak hitza eman zion bere koalizio gobernari (governu horretako kide batzuek ahoan bilorik gabe mehatxatzen dituzte palestinarrak holokausto batekin, Matan Vilnai Defentsako ministroordeak egin duen bezala, edo palestinarrak Palestinatik betiko kanporatzearekin, nola egin baitu Avigdor Lieberman Gai Estrategikoetako ministro ohiak) bakar-bakarrik onartuko zuela eduki gabeko adierazpen lauso bat eta eguneroko jardunean aisa urratzeko moduko egutegi bat. Bush presidentea, berriz, Annapoliseko konferentziaz baliatzen da olibondo adar faltsu bat eskuan harturik munduari sinestarazteko bakearen alde ari dela, Irakeko gerran hartzen ari den jipoi estaltzeko eta bere militarismoak Mendebaldean eragin duen hastioa apur bat gozatzeko. Mahmoud Abbas, Palestinako presidentea, herririk eta naziorik gabe joan zen Annapolisera. Oraindik presidentea bada, Israeliek eta Estatu Batuek laguntzen diotelako da. Abbasek ondo asko zekien Annapoliseko fartsa horretan ez zela urrats bat ere aurreratuko bake justu baterako bidean, baina ez zen joan

gabe geratu hargatik.

Gaza, aldiz, elkarrizketa -zinezko edo alegiazko- guztietatik kanpo geratu da, bakartua eta setiatua. Europako Batasunak eta Israeliek boikota ezarri diote Gazako populazioaren bizi-baldintzak hobetu ditzakeen laguntza humanitarioari, eta ondorioz gazatarrak gero eta hurbilago daude hondamenditik eta eztanda egitetik. Eta zein da palestinaren krimena? Zein da Gazako biztanle guztiak setio kriminal baten azpian atxikitzeko Israeliek eta nazioarteko komunitateak daukaten arrazoia? Bakarra: nazioarteko komunitateak onartzen ez duen alderdi politiko bati botoa eman izana. Hil aurretik Gazak eztanda egingo du. Astiro, krueldki eta modu adostuan, gazatarrak leherketarantz bultzatzen ari dira, genozidio horren aurrean munduko gobernu guztiak isilik eta mutu dauden bitartean. Gaza ispilu bat da, eta ispilu horretan islatzen da nazioarteko komunitateak Israelen krimenen aurrean agertzen duen jarrera lotsagarria. Israeliek gazatarrak zangoetan dauka, bizi ezinik, munduko aire libreko kontzentrazio eremu erraldoienez hertsatuak, eta tarteka-marteka

nazioarteko bake-antzekoan ondo geratzeko Zisjordania checkpoint ale batzuk kentzen baditu ere berehala jarriko ditu beste hainbeste beste nonbait; era berean, Israeliek askatu dituen preso palestinarrak beteta dituzte euren zigorrak, eta askatzen dituen horiek zangoa kalean jarri orduko atxilotuak ditu beste hainbeste beste nonbait (une honetan 9750 palestinarrak daude preso Israelgo presondegitan). Eta hori guztia gertatzen den bitartean aurrera doa Apartheidaren Harresia, zeinaren aldean Berlingo jostailu bat baino ez baitzen izan.

Gazaren kontra krimen definitibo bat burutzen duen bitartean Israelgo gobernuak ez dauka inolako lotsarik argi betean agertzeko bere neurrien azpian dagoen ideologia. Izan ere, aditu nahi duen guztiari esaten dio Palestina judutartzen jarraitu behar duela eta hamar milatik gora etxebizitza berri eraiki behar dituela Jerusalem beste kolonia erlijioso ilegal bat egiteko. "Arabiarrei kanporaketa ona opa diegu" dio kartel batek Jaffan, 20.000 biztanle palestinarrak dituen Israelgo hirian, argi utziz 1948tik hona Palestinako garbiketa etnikoko proiektu sionista ez dela se-

kula eten, ezer egitekotan egokitu eta perfektionatu egin dela, eta proiektu hori ez dela iraganeko kontua baizik eta orainaldiaren oinarri eta funtsa. Krimen definitibo bidean dago, astiro baina seguru, eta gero eta hurbilago.

Ekimena

Palestinako gizarte zibileko erakundeek erakutsi digute oso argi dituztela gauzak eta gonbita egin digute beren ekimenarekin bat egitera, hau da, gure tresna indartsuena, erresistentzia zibila, salaketa politiko eta presio tresna bezala erabiltzera palestinaren garbiketa etnikoa bultzatzen dutenen aurka. Esan digute badakitela nola borrokatu Israelen aurka eta zein bide hartu beharko luketen gure herrialdeetako elkartzasun erakundeek. Saiatuko gara gure indarrak biltzen eta indarra eta presioa egiten haiek esandako helburu zehatza gauzatzeko: boikota Israelgo apartheid Estatuaren kontra, behiala Hegoafrikako apartheid Estatuaren kontra egin zen bezala.

Bilbo Ekimenetik ahalik eta gehien lagundu nahi genuke mugimendu hori

koordinatzeko behar diren urratsak ematen. Euskadiko eta Espainiako gizarte zibila Palestinako gizarte zibilaren eskari legitimoen zerbitzura jarri da. Gu kide gaituen Mewando Sareak bultzatutako Bilboko ekimenak gizarte zibil gero eta globalagoaren koordinazioa bultzatu nahi du, guztion indarrak gero eta modu eraginkorragoan elkartu daitezen helburu justu eta legitimo bati buruz: justizia Palestinarentzat. Bakea bai, baina justua eta iraunkorra. Lan hori ongi burutzeko ezinbestekoa zaigu hiztegi pertsonaletik 'askatasuna' hitza oraindik ezabatu gabe daukaguen guztion ekarpena. Beraz, zuen guztion zain gaude Bilbon.

Testu hau ondoko elkartek sinatzen dute: Mundubat, Centro Cultural Palestino BILADI, Nazioarteko Elkastasuna-Solidaridad Internacional, Coordinadora de ONG de Euskadi, Fundación Paz y Solidaridad en Euskadi, Médicos del Mundo de Euskadi, Paz Con Dignidad-Euskadi, Sodepaz eta Ecologistas en Acción.



Comité Español de la UNRWA

Israelgo Gobernuak palestinarrak euren etxeak eta lurak uztera behartzen du checkpoints kontrolaren sistemaren bitartez. Calandiako checkpoint-a Jerusalemetik Ramallahrako sarreran.

Hirurogei urteko desjabetze eta garbiketa etnikoa

Israelen 60. urteurreneko ospakizun ekitaldien aurkako boikot deialdia, Palestinako gizarte zibileko 200dik gora erakunderen komunikatua.

Nola ospatu dezakeuzue? Duela 60 urte Israelgo Estatu sortzea proiektu kolonial bat izan zen, Palestinako 750.000 arabiar euren etxe eta lurretatik sistematikoki eta indarkeriaz bota zituena. Duela 60 urte milizia sionistek palestinarren ondusunak arpilatu zituzten eta ehundaka herri palestinarrak suntsitu. Nola ospatu dezake horrelako hondamendi bat kontzientzia izpi bat daukan inork?

Iragan 60 urtean Israelek sistematikoki ukatu die errefuxiatu palestinarrak etxera itzultzeko eta kalte-ordainak jasotzeko Nazio Batuek aitortua dien eskubidea. Eta eskubide hori ukatzen die arrazozi bakar bategatik: juduak ez direlako. Bitartean, Israelek hor jarraitzen du Palestina eta beste herrialde arabiar batzuk ilegalki okupatzen eta Nazio Batuetako ebazpen andana bat urratzen. Israelek egundaino bezala ukatzen dizkie palestinarrak beren funtsezko eskubideak, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta Giza-Eskubideen Aldarrikapena urratuz. Palestinarrak diskriminazio instituzionaleko sistema baten azpian zapaldu atxikitzen ditu, Hegoafrikako apartheid sistemarekin antz ikaragarria daukan sistema batean. Bestalde, horiek guztiak egin arren Israeli inork ez dio konturik eskatzen ez zigorrik ezartzen, hain zuzen ere Estatu Batuen eta Europaren inmunitate mugagabea duelako, bai eta haien laguntza ekonomiko, diplomatiko, politikoa eta akademikoa.

Turineko eta Parisko liburu azoketara Israel "ohorezko ostalari" bezala gonbidatzea, bere krimenak estaltzeko ahalegina da

Ikusirik gaur eguneko Israelgo errealtatearen oinarrian dagoen aurpegi anitzeko zapalkuntza, sinetsita gaude Israelgo Estatuaren sorreraren 60. urteurreneko ekitaldiei zuzenean nahiz zeharka laguntzeko herrialde arabiarrek nahiz munduko beste edozein herrialdek egindako edozein ekarpen, indibiduala izan ala instituzionala izan, eta edozein arlotan gertatua delarik ere, konplizitate ekintza bat dela errefuxiatu palestinarrak desjabetzea eta deserrotzea betikotzeko, okupazioa bere horretan mantentzeko eta Israelek ezarritako apartheid erregimena sendotzeko.



Comité Español de la UNRWA

Ume errefuxiatuak klasean denda batean, 1948an beren herriaren hondamendiaren ondoren.

Turineko eta Parisko liburu azoketara Israel "ohorezko gonbidatu" bezala gonbidatzea ez da bakarrik traizio deliberatu bat giza-eskubideen oinarriko printzipioen, hots, Europako Batasuneko legeriarekin hain estuki lotuta dauden printzipioen kontra, baita ere ahalegin deliberatu bat Israelek arabiarren aurka -batez ere Libanon eta Palestinan- egiten dituen gerra-krimenak estaltzeko, eta bistatik kentzeko Gazako Zerrendan setiopean preso eta zigor kolektiboen azpian atxikitzen dituen milioi eta erdi palestinarraren aurkako bere genozidio graduala. Labur esanda, Israelgo Estatuaren sorreraren 60. urteurrena ospatzea palestinarraren hilobien gainean dantzan egitea bezalakoa da.

Dei egiten diegu nazioarteko gizarte zibilar eta bere kide guztiei, bereziki erakundeei eta akademia, kirol, sindikatu eta erlijio esparruan lan egiten duten instituzio eta pertsonai, boikota egin diezaizuten Israelen 60. urteurreneko ospakizunei, ospakizun horiek nonahi egiten direlarik ere. Ospakizunok, definizioz, gure historia iraintzen dute, gure eskubideak bortxatzen dituzte eta gure zapalkuntza larritzen dute. Era berean, eragozpen gaindiezina bihurtzen dira justizian, askatasunean, berdintasunean eta nazioarteko zuzenbidean oinarritutako bake justu eta iraunkorrera sekula iristeko.

Palestinako gizarte zibileko 200 elkarte baino gehiagok deialdi hau sinatu dute: www.bds-palestine.net

Nakbaren oroimena berreskuratzeko

Nakbaren ("hondamendia", Palestinako exodoa adierazteko hitza) oroimen historikoaren aldarrikapena gatazkari bidezko irtenbideak bilatzeko abiapuntua da.

IGNACIO ÁLVAREZ-OSSORIO*
Palestinarrak oraindik zain daude noiz konplutuko ote den Nazio Batuek 1948an hartutako 194. ebazpena, zeinak eskatzen duen Palestinatik kanporatutako palestinarrak guztiak albat arinen itzul daitezela beren herrietara eta jaso ditzatela dagozkien kalte-ordainak. Hirurogei urte geroago, 1948an Palestinatik indarrez kanporatutako 800.000 palestinarrak haien ondorengoak jadanik lau milioi lagun dira, nazioarteko zuzenbidea noiz beteko zain, eurak ere. Diaspora horren %10 Libanon dago kokatua. Bassma Kodmani-Darwish irakaslea dioenez bezala, "Libanon bizi dira herri erbestatuaren eskaleak, anti-diasporaren epitomeak, orainaz batere grinarik ez dutenak eta are gutxiago etorkizunaz. Nola zafratuak izan diren, hainbat aldiz lekuak husteratuak, ezin izan dute metatu ondasunik ez status sozialik, ezin izan dute euren burua jantzi euren egoera hobetzeko. Libanon iragan tragikoa dute, orainaldi zaila eta etorkizun beltza".

Ikerketa zentro eta erakunde akademiko askok azpimarratu dute nolako premia dagoen Nakba-ren (hondamendiaren) museo handi bat sortzeko, ezbehar hura pairatu zutenak hiltzen direnean ez dadin desagertu gure historiaren zati bat. Seguru asko Palestine Remembered erakundeak (www.palestine-remembered.com) egin du ahalegin handiena lekukotasunak, argazkiak eta era guztietako dokumentuak biltzen gertakari latz haien oroitzapena bizirik mantentzeko. 2004ko udan nik ere bat egin nuen ekimen horrekin eta bisitaldi bat egin nuen Libanoko kanpamenduetara bertatik bertara ikusteko nolakoak ziren errefuxiatu palestinarrak bizi-baldintzak eta Nakba hura beren larrian bizi izan zuten jendeak ezagutzeko. Gogoan ditut bereziki Xatilako Nahr al-Bared eta Sumayaren kontakizunak. Mahmud Hasan Layla 1932an jaio zen Saffuriyya izeneko herririk batean, Haifa eta Tiberiadesen artean. Armada israeldarrek herriko jendea kanporatu zuenean oinez ibili behar izan zituen mugaraino zeuden 80 kilometroak. Orain Nahr al-Bareden bizi da, Tripoli iparraldeko kanpamendu batean, txikituta geratu zena 2007an Libanoko armadaren eta Fatah al-Islam taldearen arteko borrokaldeetan. Hala dio Mahmudek: "Gure lehenbiziko aterpea Bekaa ibarreko barrakoi frantses zahar bat izan zen, agintariak guretzat bereizi zutena. Ez geneukan ez urik ez argirik eta elkarren gaina metatuak bizi ginen, barrakoi bakoitzean hogeita hamar zuten, mihise batzuk beste ezer ez zutela elkarrengandik banatzeko. Argi egiteko olozko krisailu batzuk erabiltzen genituen, izugarriko kea ateratzen zutenak eta airea zeharo kutsatzen zutenak, lanak izaten baikenituen arnasa hartzeko. Gero familia bakoitzari irina, azukrea, arroza, lekaleak, kontserbak eta olioak banatzen hasi ziren".



Comité Español de la UNRWA

Emakume palestinarrak gogor parte hartu dute Nakbaren ahozko memoria zein belnaldien arteko lekukoaren transmisioaren mantenimenduan. 1976.



Comité Español de la UNRWA

Palestinarrak errefuxiatuak jasan behar izan dituzten bizi baldintzengatik palestinarrak identitatea gogortu da eta gatazkaren irtenbide zuzena aldarrikapena. 1948.

be. Ondoren Gurutze Gorria agertu zen eta denda ale batzuk paratu zituzten Tiro ondoan, eta sei hilabete egin genituen han. Ura ekartzeko arduraduna nintenez kilometroak egin behar izaten nituen ur bila". Hortik aurrera ibilbide luze bat hasi zen: "Aurrena Anjar-eraman gintuzten, Siriako mugara. Hango neguak oso gogorak izaten ziren eta bi metro altuko elurra egiten zuten. Gero Nahr al-Bared-eraman joan ginen, baina nola lanik ez zegoen eta guk ez geneukan laguntzarik, artean gurekin genituen gauza baliotsu pixarrak saldu behar izan genituen. 1953an Beirutera jo genuen. Ezkondu nintzen eta Tal Zaatar-en jarri ginen bizitzen, baina gerra zibilaren denboran kanpamendua txikituta geratu zen. Orduan Xatilara joan ginen, eta han pairatu genituen 1982ko sa-

rraskiak eta 1985eko kanpamenduetako gerra, zeinaren ostean erabat txikituta geratu zen".

Beti izan dute gogoan Palestinara itzultzea, batez ere kanporatuak izan ondoko lehenbiziko hilabeteetan. Elkarriketatuetako batzuek aitortu zitaduten hainbat aldiz igaro zutela muga beren senideak ikusteko edo ospakizunen batera joateko. Sumayak etsipenez aitortzen du: "Hasierako hilabeteetan minutu bakar batez ere ez genuen burutik kentzen itzultzea, baina urteak igaro ahala gure etxeetatik gero eta urrutia gauda. Dagoeneko ez dut ametsik egiten. Jainkoak barka nazala, baina honezkerok ez naiz gauza ametsik egiteko".

*Alacanteko unibertsitateko Ikasketa Arabiar eta Islamikoen Irakaslea.

Israelgo Estatuaren jaiotzaren historiari jarraituz

Israelgo "historiagile berriek" beren Estatuaren sorreraren berezko bertsioa dute, ofizialatik urrun, garbiketa etnikoaren garrantzia ahaztuz.

Ondoko lerroetan azalduko ditugu Israelgo historialari berriek azken urteotan plazaratu duten gertakari historikoen irakurketa berritzailearen oinarriko elementuak. Historialari berri horien artean ospetsuenetako bat Ilan Pappé da, Haifako unibertsitateko irakasle ohia eta bere borondatez deserrira aukeratu ondoren Exeter unibertsitateko irakaslea. Israelen lan egiteari uko egindako historialari honek eman zion hasiera Estatu horretako historia ofiziala goitik behera berraztertze ahaleginari, eta berak bultzatu du nazioarteko justiziak Israelgo Estatuak bere sorreran gizadiaren aurka egin zituen krimenak aztertze eskaria. Ondoren datozen pasarteak Palestinako benetako historia ezagutzeko funtsezko



lan batetik atera dira: Ilan Pappéren "Palestinako Garbiketa Etnikoa", Crítica argitaletxea, 2008.



Comité Español de la UNRWA

1948an Nazio Batuek Israelgo Gobernuari emandako lur eremuaren barruan bizi ziren palestinarrek euren etxeak uztera eta ondoko herrietan babestera behartu zuten.



SARRASKIAK, IZU-IKARA ETA 800.000 KALERATU

(...) 1948ko martxoaren 10eko gau hotzean 11 gizonek, denak ere lider sionista beteranoak eta militar judu gazteak, Palestinaren garbiketa etnikorako planaren oinarriak finkatu zituzten. Arratsalde horretan bertan agindua eman zieten han-hemen barreiatutako unitateei behar ziren neurriak har zitzaizten herrialdeko eremu erraldoi batetik palestinar guztiak kanporatzeko (...). Agindu horietan xeheki adierazten zen zein metodo erabili behar ziren palestinarrek euren herrietatik indarrez botatzeko: intimidazio masiboa, baserri eta herriak setiatu eta bonbardatu, etxe, soro eta ondasunak erre, jendea kanporatu, eraikinak errautsi eta etxe hondakinak minaz josi, kanporatutako palestinarrek itzuli ez zitezen...



plementazio sistematikoa garbiketa etniko biribila da eta nazioarteko legeriaren argitan gizadiaren aurkako krimena. Alta, krimen izugarri hori ezabatu egin da munduko oroi-omen publikotik: Israelek 1948an palestinarren aurka bururatutako lapurreta masiboa, Palestina modernoa moldatu duen gertakari erabakigarriena, sistematikoki ukatu da eta oraindik ere ez da ezagutzen ez bakarrik ikuspegi moraletik baizik eta politikotik ere aztertu beharreko gertakari historiko bat bezala...

GARBIKETA ETNIKOA GATAZKAREN ABIAPUNTU

(...) Ikuspegi honetatik posible dugu ulertzea diplomatiko israeldarrek instintiboki erabiltzen duten konplexutasuna, zeinaren atzean ezkatzen diren Israelgo akademikoak Estatu juduaren edo sionismoaren aurkako kritikak desaktibatu nahi dituztenean. "Atzeritarek", esan ohi da gurean, "ez dute ulertzen eta ezin ulertu dezakete gure historia konplexua" eta, hortaz, ez dago premiarik historia hori azaltzeko. Gauza bakarra egin dezakete: utzi "guk", gatazka honetako alderdi "zibilizatu eta arrazionalaren" ordezkariok, aurkitu dezagun konponbide zuzen bat "geuretzat" eta kontrako alderdiarentzat, hots, mundu arabiar "zibilizatu gabe eta emozionalaren" ordezkari diren palestinarrentzat. Halere, Palestinaren kasuan gehien harritzen gaituena da nolako amildegiak bereizten dituen elkarrengandik errealitatea eta haren errepresentazioa. Zaila da azaltzea nola halako krimen erraldoi bat, garai modernoetan gertatu dena ehunka kazetari eta Nazio Batuetako begiraleen begiepean, desagertu egin den gure bistatik hain modu erabatekoan. Ukaezina da alabaina pa-



lestinaren garbiketa etnikoa oroimen kolektibotik ezabatua izan dela. Konponbideak erraza ematen du: mundu arabiarrean txertatutako azken enklabe poskolonial europarra den aldetik, Israelek Estatu zibil eta demokratikoa bihurtzea beste irtenbiderik ez dauka. Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak 1948an onartu zuen Israelek 1948an kanporatutako errefuxiatu palestinarrek bere herria itzultzeko duten eskubidea. Eskubide hori nazioarteko legerian oinarritzen da eta bat dator justizia unibertsaleko nozio guztiekin. Israelek palestinarren espolioan jokatu duen papera onartzen ez duen bitartean, garbiketa etnikoa burutu duela ezagutzetik heldu diren ondorioak onartzen ez dituen bitartean, alferrik izango dira gatazka konpontzeko saio guztiak. (...).

DALET PLANA: PROIEKTU KOLONIALA

(...) "D Plana" (Hebraieraz "Dalet Plana") kode-izena zeukan plana zen sionistek Palestinarako eta, hortaz, palestinarrentzat buruan zeukatzen etorkizuna zehazteko prestatuak zituzten zenbait proiektu bigunxeago batzuen osten taxutu zuten azken eta behin-betiko plana, aurreko guztiak baino askoz gogorragoa. Aurreko bertsioetan lidergo sionistak azaletik baizik ez zuen aztertzen Palestinako jatorrizko populazioari emango zitzaion trataera. Laugarren bertsioan, aldiz, argi eta garbi esaten zen palestinarrek alde egin behar zutela. Kontuan izanik palestinarren kanporatzaileak herrialdera orduantxe heldutako jendeak zirela eta proiektu kolonialista baten zerbitzura ari zirela, Palestinaren kasuak erabateko antza dauka Amerika, Afrika eta Australiako garbiketa etniko historia kolonialistarekin, zeinetan kolonoak krimen horiek ermutiaz burutzera ohitu baitziren. Kolonialismo eta sionismoaren arteko lokamiaren bertutez hasieran zapalkuntza gailendu zitzaion kanporaketari, baina behin proiektu sionistan ekonomia zeharo judu bat eraikitzeke nahimena nagusitu zenean, jadanik ez zen gehiago tokirik langile eta nekazari arabiarrentzat, eta lu-

rraldetik kanporatuak izan ziren. Artibo militar israeldarretako datuak eta heritarren ahozko lekukotasunak biltzen dituzten iturri palestinarren arabera frogatuta dago 31 sarraski gertatu zirela, hasi Tirat Haifako sarraskitik (1947ko abenduaren 11n) eta Hebron eskualdeko Khirbat Ilinoko sarraskiraino (1949ko urtarrilaren 19an). Horiez gain, bali-teke beste sei sarraski ere gertatu izana. Nakbaren memoriaren artibo sistematikorik ez dagoenez, ezin jakin dezakegu sarraski haietan hil zirenen izenak. Tel Aviveko unibertsitatek 15 minutuko bidean dago Kfar Qassim herrixka, non 1956ko urriaren 29an amada israeldarrek 49 baseritar garbitu zituen sorotatik etxera heldu zirenean. Ondoren beste anitz sarraski gertatuak ziren: Qibya (50.eko hamarkadaren hondarrean), Samoa (60. hamarkadan), Galileako herrixkak (1976), Sabra eta Xatila (1982), Kfar Qana (1999), Wadi Ara (2000) eta Jeningo errefuxiatuen zelaia (2002). Betselam, Giza Eskubideen aldeko Israelgo erakunde nagusiak horien guztien erregistro zehatza darama. Sortu zen egunaz geroztik Israelek sekula ez dio utzi palestinarrek hiltzeari. (...)

NAKBaren jarraipenak Apartheid sistema eraginkor bat sortu du

Israelgo Estatuak Palestinako luraren lapurketa legitimatzeko legeko erregimena ezarri du, haien biztanleak kanporatuz.

INGRID JARADAT GASSNER*

Sionismoak gerraren bidez lortu zituen abantailak finkatzeko tresna bat baino ez da izan Israel 1948tik hona. Israelek, lurraldearen kontrola seguratu ondoren, juduen mugagabeko inmigrazioa bultzatu zuen. 1948tik 1966ra bitarteko Gobernu militarrek asmo argi batzuk zeuzkan: kanporatu gabe zeuden palestinarrak kontrolatu, errefuxiatu itzulera eragotzi eta hala kanporatu nola kanporatu gabeko palestinarrak lurrez jabetzeko prozesua erraztu eta azkartu. 50eko hamarkadaren erdirako Israelek jadanik 5000 palestinarratik gora hil zituen "infiltratzen" ari zirelako akusaziopean, funtsean etxera itzuli besiterik nahi ez zuten jendeak ez baziren ere. 1948ra arte Funts Nazional Juduak lurren %11 kontrolatzen zuen eta gaur egun berriz %90 kontrolatzen du. Israeldarrek suntsitutako 500 herrixka palestinarraren izenak mapetatik ezabatu ziren eta toki izen guztiak hebraierara itzuli. Israeldarrek 60ko hamarkadara arte sistematikoki suntsitu zituzten herrixka palestinarraren hondakinak eta gaur egun oraindik harriz harri ari dira txikitzen 1948 aurreko Palestina. Lan horri "Paisaia nazionalaren garbiketa" deitu diote.



Palestinarraren artean, euren natur ondasunak, lurak eta palestinarraren arteko banaketaren azken irudikapena horma da. Hormak hiritarrak inguratzen eta kanporatzen ditu judutarren kolonien eraikuntzak handitzeko asmoz.

L.M. Etxesuri

Israelgo Estatuak apartheid erregimen bat ezarri zuen 1948ko gerratik landa gertatutako palestinarraren desplazamendu masiboa eta palestinarraren ondasunen desjabetzea legalizatu eta mantentzeko. 1952ko ekainean Israelgo Hiritartasun eta Sarrera Legea onartu zen, eta bere birtatez naziotasuna kendu zitzaizen Palestinatik kanpo desplazatuta aurkitzen ziren errefuxiatu palestinarrak. Errefuxiatu palestinarrak ezin dute itzuli beren sorterrira, baina 1950ean onartutako Itzulera Legeak automatikoki ematen dio Israelgo naziotasuna munduko edozein juduri eta haren senideei. Larrialdiko lege-sare bat muntatu da "bertan behera utzitako" ondasun palestinarraren gainean, ondasun horiek Estatuari, Garapenerako Autoritateari eta Funts Nazional Juduari transferitzeko. 1960ko Israelgo luraren legearen arabera, lur horiek ezin dira inorenanatu ez salmentaz ez beste ezin medioz, eta ondorioz lurren %93 inguru juduek beste inork ezin erabil ditzakete.

*Badil - Errefuxiatu Palestinarraren Eskubideen aldeko Baliabide Zentroko zuzendaria. (AL MAJDAL izeneko bere aldizkariatik aterea, 36-37. zkiak., www.badil.org)

Beharrezkoa da Espainiako kooperazioa Gazan sartzea

Egileak, kooperante aritzen denak, Gazan bizi diren palestinarraren egoera larria aztertzen du, batez ere, giza laguntzaren arloan, aurrekaririk gabeko krisialdia sortuz.

JOSÉ VERDÚ*

Denbora asko da Gaza mundutik erabat bereizita geratu zela "Deskonexio Plana" ren bitartez, zeinak izenean bertan ezagun baitu bere izaera. Israeldarrek Gaza bereizita utzi dute bere neba-arreba palestinarrarengandik, auzoko herrialde guztietatik eta bizitzeko behar dituen baliabide guztietatik.

Eta Gaza gugandik ere bereizi dute, nazioarteko ekintzaile eta kooperanteongandik. Azken hilabeteen birritan saiatu naiz Gazarekiko gure elkartasuna adierazten bertara joanda, gure ahotsa adieraziz, palestinarraren kausa partekatuz eta bultzatuz. Lehenbiziko saioa apirilaren lehen egun gurean, 12 herrialdeko nazioarteko ekintzailez bateriko autobus batean Sinaitik zehar Rafahko pasabidera hurbildu ginelarik laguntza humanitarioa helarazteko eta protesta egiteko Egiptoko gobernuaren aurrean, Gaza setiatzeko Israeli ematen dion laguntzarengatik. Damurik, egiptoarrek ez ziguten utzi pasatzen, eginahalean saiatzen baitira inor eta ezer hurbildu ez dadin Gazako Zerrendara.

Bigarren saioa instituzionalagoa izan zen, nire erakundeak lankide duen Espainiako kooperazioaren itzalpean burutu baitzen. Gazara sartzeko baimena eskatu nuen Espainiak Jerusalem duen kontsulatuaren bitartez, kontsulatuak eskaria tramitatu zuen eta informazioa Eretz pasabidera bidali, hau da, Israelek Gaza itozteko darabilen sokaren urka-bilurrera. Esan gabe doa, armada israeldarren ohiko jokabideari jarraituz Eretz pasabideko israeldarrek ez ziotela erantzun gure eskariari eta kooperanteok ez genuen beste aukerarik izan ezpada bertara azaldu eta pasatzen saiatu, aurrean suertatzen zitzaigun soldadua aldarre



onean aurkituko gurelako esperantzaz. Espainia eta Israelgo Estatuak elkarrekin dituzten harremanen ikuspegitik begiratu errealtate hori oso kezagarria da, argi dagoelako harreman horiek Espainiako subiranotasun politikoa -kooperazioari babesa ematen diona- bortxatzen dutela eta Israelen aurrean burua makurtzea eskatzen dutela. Eta hori Ben Gurioneko aireportuko kontrolak ez aipatzearen, beste artikulu baterako gaia baienuke hor.

Onartezinak dira Israelek nazioarteko kooperazioari eta Espainiako laguntza humanitarioari inposatzen dizkien arbitrariotasuna eta blokeoa, batez ere Gazan baina baita ere Palestinako lainerako lurraldeetan. Egun batzuk lehenago OTCn (AECI-ren Kooperazioko Bulego Teknikoan) egindako batzar batean esan ziguten Espainiak emandako zazpi milioi euro baino gehiago daudela lotuta Gazako blokeoaren ondorioz. Mutu egon behar al dugu palestinarraren subiranotasuna bezala gurea ere halako gisaz kolpatzen duen Israelen jokabide horren aurrean?

Apirilaren 17an Eretzeko pasabidera joan nintzen. Iritsi nintzenean alde iluneko (hala deitu zion ninderaman txoferrak) atetzarraren aurrera, emakume gazatar taldetxo bat ari zen sartzeko Gazako lu-

rraldera, aldean zeramatatzela arropak, janariak, ekipo elektronikoak, erregaiak eta beste anitz salgai. Israeldarrek lupaz miatu zizkien maleta guztiak eta zentzugabeko galderez josi zituzten.

Heldu da nire txanda. Soldaduek behako zaputz bat egin zidaten. Esan nien Espainiako kontsulatuak Gazara sartzeko baimena eskatua zuela niretzat eta kooperazio espainiarrekin batera Gazan lanean ari den GKE bateko kidea nintzela. Soldaduen erantzunak Israelgo armadak eman ohi dituzten erakoak izan ziren, hots, absurduak: "gaur arabiarrak baizik ezin dira sartu", "juduen Pazkoa da"... Funtsean, aitzakia on bat edo gutxienez erantzun legal bat emateko inolako premiarik ez dutela badakitenean eta gogoak ematen dien guztia erabakitze botea dutenen arbitrariotasuna erakutsi zuten. Soldaduekin ordu erdian ezbaian jardun ondoren agindu idor batekin moztu zuten afera: "Ezin diagu lagundu eta enbarazu egiten ari haiz, beraz hustu itzak lekuak fite!".

Espainiako kooperazioaren estalkiak ez zuen aski indar izan Gazako atea ireki ziezadaten. Hori derrigorrez aldatu behar da. Gure gobernuak arazo horri adarretatik heldu behar dio. Gaza denentzat itxita dago baina irekita egon nahi du. Pasabideaz bestaldean nire zain zegoen lagun palestinarrak gaur goizean idatzi dit: "Noiz hator hona berri? Hire zain jarraitzen diagu". Egonarrria eta kemena erruz beharko ditugu behin eta berriro saiatu eta salatze.

José Verdú SODEPAZek Palestinan duen erbesteratua da eta Palestinako Okupazioaren aurkako Estatuoko Sareko kidea



Israelgo ejerzitoaren jeep bati harriak botatzen zituenean hilda sortu zen gazte baten lur ematea Hebron hirian.

L.M. Etxesuri

EZ IZAN BELDURRIK, ZOAZ PALESTINARA

Udako oporretan Palestinako herriari zure elkartasuna agertu nahi badiozu, badituzu hainbat aukera Palestinara joateko turismo politiko, sozial eta kulturalerako brigadetan. Brigada horien helburu nagusia da munduari ezagutaraztea Israelen okupazio militarra eta palestinarraren aurka ezarrita daukan apartheid sistema, hots, Palestinako lurraldean elkarrekin talka bizi diren errealtate eta nortasun biak: juduen kolonialismoa eta palestina-

ren erresistentzia. Aukera izango duzu, baita ere, laguntasuna emateko palestinarraren xehetia eta euren erakundeak, egunero daramaten borrokan nahasteko, arabiarren kultura eta historia ezagutzeko, distentsio eta arartekotzako eragile internazionala izateko, brigadakide zaren aldetik palestinarraren borrokan zeure burua bertatzeko eta etxera itzultzen zarenean okupazioaren berri zabaltzeko eta kontrainformazioa sortzeko. Labor esanda, bidea jartzeko na-

zioarteko gizarte zibilak indarra har dezan eta funtsezko papera joka dezan okupazioarekin bukatzeko. Bidaia horietakoren batean parte hartu nahi baduzu, erakunde hauetara jo dezakezu informazio gehiago lortzeko: Komite Internazionalistak (Euskadi): Kibilbo@herriak.org Xarxa de Enllac amb Palestina (Catalunya): internacional@xarxapalestina.org SODEPAZ (Madrid): ejuverdu@sodepaz.net

Israelgo Estatuari boikot ekimenak

Hegoafrikako adibidetzat, hainbat elkarteek Israeli boikot kulturala, kiroleko eta ekonomikoaren deialdia zabaldu dute, giza eskubideen etengabeko urratzeari erantzunez.

Hiritarrak Gobernuen ordezkari bihurturik Israelgo Estatuaren aurkako boikotean.

Ikusirik erakunde eta gobernuak ez dutela inolako neurri edo zigorrak hartzen Israelen aurka, hiritar eta gizarte erakundeek bere gain hartu dute boikota bultzatzeko lana. Sinesten dutenek palestinarren bizi-baldintzak hobetzeko presio politika irmo eta eraginkor bat egin behar dela Israelen aurka, elkarrengana bildu behar dira boikot hori modu aktiboan, deliberatuan eta konplizean bultzatzeko. Zigor ekonomiko-politikoek erabateko arrakasta izan zuten Hegoafrikako apartheid sistema hondatzeko, eta Israelen aurka ere aplikatu behar dira. Ez du zentzurik esateak duela hamar urte apartheid sistemaren aurka borrokatzeko balio izan zuten arrazoiek ez dutela indarririk gaur egun gauza bera egiteko beste herrialde batean.

Boikot kulturala

Estatuko Sarea harremanetan jarri da Javier Cercasekin eta eskatu dio ez dadila joan Israelera eta bat egin dezala AIC-k (Jerusalemeko Alternative Information Center-ek) aldarrikatutako boikotarekin. Estatuko Koordinakundeak dei bat egin dio "bere ekintza publikoetan ikustate eta errespetu handia irabazia duen pertsona den aldetik, uko egin diezaien Jerusalemeko Nazioarteko Idazleen Jaialdira joateari. Obligazioa eta asmoa dugu honelako neurriak lantzen jarraitzeko jaialdi hori egiten den egunera arte. Gure ustez, Israeliek egin dizun gonbita onartuko bazenu nazioarteko mailako babes intelektuala emango zenioke gizadiaren aurkako krimen bati. Jarrera publikoa hartuko bazenu ikaragarri aitzinazaziko zenuke borroka hau. Hegoafrikako apartheidak boikotaren indarra nozitu zuen eta ziur gaude zuk ere ulertu eta babestuko duzula Israelgo Estatuaren aurkako boikota".

Halaber, harremanetan jarri gara uraren gaiaren inguruan antolatutako Expo Zaragoza 2008-ko zuzendaria den Emilio Fernández-Castañorekin, zeinak Israelgo Orkestra Sinfonikoa gonbidatu



Palestinarrak Israelgo ejerzitoarekin aurre aurre pasa den martxoaren 30ean Azzoun herrian lurraren eguneko ospakizunetan.

baitu kontzertu bat ematera Zaragozan ekainaren 12an. Hauxe esan diogu: "uraren gaia eta garapen iraunkorra Expo Zaragozaren ardatza izanik, bidezkoa iruditzen zaigu azpimarratzea nolako kontraesan bortitza sortzen den nazioarteko legeriaren aldeko agertzen den Gobernu batek Israelgo Orkestra Sinfonikoa bezalako erakunde bat gonbidatzen duenean Zaragozako erakustaldia bezalako ekitaldi batera. Berriz ere gogorazten dizugu israelarren okupazioak sistematikoki ebasten duela palestinarren ura eta politika horrek palestinarren eguneroko bizi-baldintzak zapuzten dituela. Justiziaren izenean, eten ezazu behar kontzertu hori".

Kirol boikota. Aurrera

Aurrera jarraitzen du Israelgo kirol tal-

dearen aukako boikotak Tel Aviceko Maccabi taldeak ez du arnas onik hartzen Espainian. 2005ean Bartzelonan jokatutako partiduan ekintzaile batek joko moztu zuen, kantxa-sarreran dozenaka lagunek oktabilak banatzen zituzten bitartean. Gasteizen ere lazta ederrik hartuak dira TAUren aurka jokatu dituzten partiduetan. Apirilaren 3an, Bartzelonaren aurka jokatutako Euro-ligaren final laurdeneko partiduan, ekintzaile bat kantxara atera zen Palestinako bandera bat eskuan zuela, jarlekuetatik hainbat lagunek apartheidaren aurkako pankartak astintzen zituzten bitartean. Polizia pankartak kentzera heldu zenean publiko oihuz hasi zen Palestina! Palestina!, mezu indartsu bat bidaliz munduari. Horrelako ekintzenatik 3.500 eurorainoko isunak jarri dituen Gobernuak egurra dauka gizarte

zibilaren elkartasunarentzat eta bala-kua Israelen krimenentzat.

Boikota Noari

Noa abeslari israelarra ere hasi da sentitzen bere haragietan boikotaren auskiak. Iragan apirilaren 11n Tolosan emandako kontzertua moztu egin behar izan zuen ekintzaile talde bat taulatura atera zenean beste dozenaka batzuek protestaren arrazoiak azaltzeko oktabilak banatzen zituzten bitartean. Biladi Kultur Zentro Palestinarrak esan duen bezala: "lotsaz eta higuinez betetzen gaituz lez sionista ofizialarekin ageri duzun "identifikazioarekin", argi utzi zenuena Libanoko inbasioaren erruduna den Ariel Sharon ministro ohia laudatu zenuenean. Honela esan zenuen hitzez hitz: "iruditzen zait

Sharon bide onetik zihola. Gauza handiak egin zitzakeen eta sentitzen dut gaixotu izana Israel areago aitzinarazteko betarik izan gabe. Haren iritzi askorekin ez nengoen ados baina azken urteotan egin zituen gauza gehienak positiboak izan dira".

Kontsumitzaileen boikota

Katalunian Boicot preventiu erakundeak boikot kanpaina bat abiatu du Israelgo kontsumoko produktuen aurka. Hona hemen euren gonbita: ez erosi Israelen egindako produktuak, gehienbat frutak eta barazkiak, ardoa, kosmetikoak eta nekazaritzako teknologia, ez eta "Eden" ura eta "Nanas" fregonak. Barra-kodeetan 729 zenbakia ikusten baduzu jakizu produktu hori Israeletik igaro dela bere ekoizpen prozesuko uneren batean.

ZERGATIK ETEN BEHAR DA EBREN ETA ISRAELEN ARTEKO ELKARTASUN AKORDIOA?

2000ko ekainean sartu zen indarrean Europako Batasunaren eta Israelen arteko Elkartasun Akordioa. Europar Batasunak beste Estatuarekin sinatzen dituen akordio guztiek "Klausula Demokratiko" bat daukate, orain arte aplikatu ez dena. Bada garaia klausula hori beteazazteko. Israelekin sinatutako akordioaren 2. artikulua honela dio: "(...) alderdien arteko harremanek eta Akordioaren xehetasun guztiek oinarritzat izan behar dute Giza-Eskubideen errespetua eta euren barneko nola nazioarteko politika gidatzen duten printzipio demokratikoak, Akordio honen funtsezko zatia direnak". Akordio horri dagokionez Israeliek ilegalitate nabarmen bat egiten

du: Europari salgaiak saltzeko dituen erraztasunak baliatuz lurralde okupatuetan dituen kolonietan ekoiztutako produktuak esportatzen ditu Europara. Ordea, produktu horien salmenta EBko merkataritzako legeriaren araudi guztien kontrakoa da. Israeliek ezin ditu aplikatu bere nazioarteko akordioak nazioarteko ezagutzen dizkion mugaz kanpoko lurraldeetan. Bere logika kolonial eta espantsionistaren ondorioz Israeliek ez ditu finkatu nahi bere mugak, baina horrek inolaz ere ez du esan nahi Zisjordanian Israelgo Estatuko lurraldea denik. Legez, Zisjordanian ekoizten eta esportatzen den guztia Palestinako Nazio Agintearen

kontrolpean baizik ez litzateke sartu behar Europara, baina hori ez da hala gertatzen, besteak beste, gaur egun PNAREN kide eta parlamentari erdiak Israelgo presondegiatan atxilotuta daudelako. Gaur arte Europako Batasunak ez dio inolako eragozpenik jarri Israeli bere portaerarengatik. Israelgo Estatuaren jardura horiek zigortzeko tresna legalak finkatuta daude EB eta Israelen arteko harremanak arautzen dituen marko legalean, eta Europako herritar eta erakunde askok eskatzen duten gauza bakarra da aplikatu daitezela legerian aurreikusitako zigorrak lege horiek sistematikoki urratzen dituztenen aurka.



Martxoaren 30ean Azzouneko ikasleak ere kalera atera ziren okupazioaren aurka protestatzera.

MEWANDO Sarea eta Bilboko Ekimenaren koordinazioa

MEWANDO Sarea (Gerra eta Zapalketarik Gabeko Ekialde Ertaina) 2003ko abuztuan sortu zen Belen hirian egindako Nazioarteko Mintegi batean.

Topaketa horren helburua zen Israel eta Palestinaren arteko gatazka "globalizazio militarren" testuinguruan aztertzea eta erresistentziako estrategia bateratuak aurkitzea. Prozesu hori Euskadira ino zabaldu zen 2003ko urrian Bilbon egindako Palestina, Israel eta Europako gizarte mugimenduen Nazioarteko Topaketekin. Bileran horretan ondoko adierazpena onartu zen, Mewandok egiten duen lanaren printzipioak biltzen dituen:

Mewandok gune bat eskaini behar du palestinarrek eta israeldarrek euren proiektu eta jarduerak ezagutarazi ditzaten eta nazioarteko estrategia alternatibokak gara daitezkeen gaur egun nagusi diren okupazio eta indarkeriaren aurka, oinarritzat harturik beti ere palestinarren oinarrizko eskubideak aitortzea eta ondoko baldintzak betetzea:

1. Okupazio israeldarra berehala bukatzea.
2. Estatu Palestinar bideragarri bat eratzea.
3. Errefuxiatu palestinar guztiak Palestinara itzultzea.
4. Preso palestinar guztiak askatzea.
5. Aurreko lau puntuetara hurbiltzeko adosten diren ekintzak koordinatzeko gizarte mugimendu sare bat eta lan-agenda bat bultzatzea.

Bilboko Topaketan

Bereziki azpimarratu zen zeinen garrantzitsua den jendeari informazio zuzena eta egiazkoa ematea Palestinak bizi duen egoera latzari buruz, bai eta presioa egitea Estatu nola nazioarte mailan eskualde hartan bake justu eta iraunkor baten oinarriak finkatzeko. Ahalegin horretan beharrezkoa da elkarteak eta erakundeak inplikatzeko eta, oroz gain, Ekialde Ertaineko gizarte zibilaren papera defendatzea.

Mewando saiatuko da behar den dinamizazio eta arartekotza lana egiten Ekialde Ertaineko egoera Euskal Herrian hobeto ezagutu dadin eta palestinarren aldeko elkartasuna sustatzeko, lankidetzaz estuan arituz beti Ekialde Ertaineko kooperazio programak daramatzaten Estatu eta nazioarteko talde eta erakundeekin. Ahalegin bateratu hori egonkortzeko urrats garrantzitsu bat eman zen 2005ean hitzarmen bat sinatu zelarik Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin. Hitzarmen hori geroztik berriro egin da eta 2009ra arte iraungo du. Beti ere, oinarritzat hartuz tokiko erakundeek dagokiela euren eskubideak gauzatu eta defendatzea, eta iparraldeko erakundeen lana dela haiei laguntzea abiatzen dituzten kanpainen indarra eta oihartzuna mundu osoan zabaltzeko.

Mewando Partzuergoak ondoko kideek osatzen dute:

Nazioarteko Elkartasuna (une honetan Partzuergoko burua da, erantzukizuna beste kide guztiekin partekatuz), Euskadiko Bake eta Elkartasuna Fundazioa, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Munduko Medikua, BILADI Palestinako Kultur Zentroa eta Mundubat.

Mewandok, era berean, Palestinaren okupazioaren aurkako Estatu Sareak egiten dituen lanetan hartzen du parte.



Emakumeak lehen leerroan: Nablus hiriko sarbidea kontrolatzen duen Howarako checkpoint-an emakumeak manifestaldian.

Nazioarteko Elkartasuna erakundeko zuzendaria

ANA MARÍA ARRIOLA PALOMARES

Palestina bihotzean dugu eta buruarekin egiten dugu lan haren alde. Bihotzean dugu, haren exigentziak gureak direlako eta palestinarrek pairatu behar duten errealitateak gure etika jipoitzen duelako. Buruaz jokatzeko, gure konpromisoa irmoa delako eta hala dela erakusteko hartzen dugu gure gain Mewando Partzuergoak kudeatzeko erantzukizuna. Sinetsita gaude gobernu kanpoko erakundeen konpromisoak jauzi kualitatibo bat eman behar duela: sarean koordinatu, kanpainak bateratu, gure ahots guztiak aldarrikapen bakar eta berehalako batean bildu: Palestinako okupazioa behin eta betiko bukatu behar da. Mugimendu hori oraintxe hasi da tankera hartzen eta eginahalean lagundu nahi diogu.

Nazioarteko Elkartasuna iragan 15 urtean ari da lanean Palestinako lurralde okupatuetan. Badakigu, bestalde, Palestinako errealitate soziopolitiko eta ekonomikoa hain porrokatuta eta andeatuta dagoela, non erabateko hondamendia dela esan baitaiteke. Zuzentzen dudun erakunde honetan beti laztu nauten Addameer-ek, preso palestinarren defentsa juridikoa bermatzeko lanetan diharduen Palestinako gure kide batek, bidaltzen digun informazioa. Uste dut egoki litzatekeela datu horietako batzuk hona ekartzea hobeto ulertzeko zer esan nahi dugun Palestinarekiko gure lankidetzaz-lana jauzi kualitatibo baten beharretan dela diogunean.

Okupazioa hasi zenetik israeldarrek 700.000 palestinar baino gehiago atxilotu dituzte, hau da, Lurralde Okupatuak biztanleriaren %20 gutxi go-



Bil'in herrian hormaren eraikuntzaren aurkako manifestaldia.

ra-behera. Kontuan izanik atxilotutako horietatik gehienak gizonak direla, atxilotutako palestinarrek gizonen populazioaren %40 inguru osatzen dute. Bigarren Intifada hasi zenetik hona, Israelgo armadak 40.000 pertsonatik gora atxilotu ditu eta horietatik 9.000ek preso jarraitzen dute, euren artean 350 haur. Palestinarrak kaserna militarretan kokatutako epaitegi militar israeldarretan epaitzen dituzte. Epaitegi horiek ez dute betetzen zuzeneko epaitegetarako nazioartean ezarritako dauden estandarrak. Nazioarteko komunitateak badaki Israelgo gobernuak legez kanpo atxilotzen dituela palestinarrek

eta atxilotu ondoren askotan torturatu egiten dituela, baina mutu dago. Ezin dugu onartu.

Israelek aplikatzen duen legeria militarren arabera armada israeldarrek eskumena dauka edonor atxilotzeko eta zortzi eguneko preso edukitzeko esan gabe zergatik atxilotu duen eta epaile baten aurrera eraman gabe. Orobat, Armadak ez dauka derrigorrik atxilotuaren familiari jakinarazteko beren kidea atxilotu duela eta nora eraman duen. Israelgo legeen arabera, galdeketa 180 eguneko luzatu daitezke. Atxilotuaren administrazioaren kasuetan, abokatuak berak ere ezin ikus dezakeen art-

xibo sekretu bati jarraituta atxilotzen da jendea. Artxibo sekretu horiek Israelgo Segurtasun Zerbitzu Orokorak prestatzen ditu. Baldintza horietan ezinezkoa da defentsa eskubidea gauzatea. Portamen horrekin Israelek erotik urratzen ditu Estatu demokratiko batek bete behar dituen arauak.

Laburtuz, Israelgo Estatuak giza-eskubideak urratzen ditu eta guk ezin dugu jarraitu ezer egin gabe, beldurrak, kortesiak edo diplomaziak paralizatutako lekuko soraio batzuen antzera. Salatu egiten dugu portaera hori. Justizia eskatu eta erantzunik jasotzen ez denean, inpotentzia amorruari gailentzen hasten zaionean, garaia da urrats kualitatiboak emateko. Eta baita ere indarrak elkartzeko, iragan hainbeste urtean egiten ari garen garapenerako lankidetzaz lanearekin batera tresna berriak sortzeko gizarte zibil antolatuen ekimenak koordinatuzko eta presioa egiteko. Ordua da gauden tokitik Israelgo gobernuari presioa egiteko, modu konstruktibo batean handitzeko gatazka hori konpontzeko izan dezakegun eragina. Asmo horrekin hain zuzen onartu dugu Mewando partzuergoaren kudeaketa lana. Parte hartu nahi dugu nazioarteko gizarte zibilaren eragin-maila indartuko duen prozesuan eta jarrera horretan irauten dugu harik eta legeak urratzen ari direnak Estatu zibilizatu eta demokratiko baten gisa jokatzen hasten diren arte.

** Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacionaleko Zuzendaria



Olimo Canvo

Palestinarrak, libanarrak, irakiarrak, tuneziarrak eta egipziarrak ustekabeko prentsaurrea egiten Madrigo Forotik atzeraegitea adierazterakoan.

2007 Madrileko Foroaren porrotaren ondoren

Madril 2007 Foroaren porrota eta Bilbo 2008 prozesuaren beharra.

“Madrileko Foro batek nekez akabatu gaitu”. Michael Warsawskyn hitzkin abiatzen dut nire solasa. Palestinako Okupazioaren Aurkako Elkartasun Sareak ez zuen parte hartu Ekialde Ertainerako Bake Justu baten aldeko Foroaren prestakuntza eta plangintza lanetan, baina guztiarekin ere bere sostengua ematea erabaki zuen iruditu zitzaizkion ekimen ona eta beharrezkoa izan zitekeela. Sareak parte hartu zuen Foroaren prestakuntza fasean egin ziren batzar zenbaitetan, lan-lerroak sortuz eta proposamenak eginez, ideiak mahairatuz eta egoki iruditu zitzaizkion ekarpen guztiak eginez.

Gure lankide palestinarrek eskatu zituzten egon gintezen han eta Sareko erakundeok Foruaren sorrerako hasierako protokoloekin ados ez bageunden ere, erabaki genuen han egotea, iruditzen baitzitzaizkion beharrezkoa zela herrialde ezberdinetako gizarte zibilen arteko lanasare bat sortzea.

Ikusirik Foroa hasi baino egun batzuk lehenago Kanpo Gaietako Ministerioak Foroaren koordinatzaile baten bitartez egin zituen injerentzia onartezinak, Sareak erabaki zuen Forotik ateratzea eta gogor salatzea gizarte zibilararen Foroa izan behar omen zen bilkura hartan Espainiako Gobernuak saiaturako manipulazioak, gogoratuz horrelako

Arrazoi horientatik sostengatu genuen lehen Foro hutsegin hura eta arrazoi berdinentatik sostengatzen dugu orain Bilboko II. Ekimena

Foro batean ez dutela tokirik ez Gobernuak eta ez interes alderdikoei.

Foroaren koordinatzaileek eraso gintuzten esanez erradikalak ginela, gatazkako aktore batzuei hitza kendu nahi genielako, eta, labor esanda, “bake prozesuari” boikot egiten ari ginela.

Hiru salaketa horietatik bat baino ez dut onartzen: lehenengoa. Hara, Elkartasun sarean gauden erakundeak zinez erradikalak gara, arazoan sustraie-tara jotzen dugulako, beste talde eta pertsona batzuk ez bezala ez dugulako bilatzen argazki bat, dirua edo karguak. Erradikalak gara, ulertzen dugulako arazoaren sustraie-tara jo ezik se-



Olimo Canvo

Amir Makhoul, Ittijan Zuzendaria eta Sergio Yahni AICekoa Madrigo Forotik atzeraegitearen erabakiaren berri ematerakoan.

kula ez dela justiziarik izango Palestinan. Izan ere, gure sarearen funtsezko eta gutxieneko printzipioen oinarritzat hartzen dugun Nazioarteko Legeriaren arabera sustrai hori, radix hori, Palestinako okupazioa baita.

Beste salaketa biak, aldiz, inolaz ere ezin ditut onartu. Batetik, sekula ez diogu hitza ukatzen inori baldin printzipioen gutuna sinatu badu eta Nazioarteko Batzordeak asanbladan onartua izan bada, bera baita hizlari eta ponentziari buruz erabakiak hartzeko eskumena duen organo bakarra. Era berean, ez diogu boikotik egin prozesuari ez Foroari; aitzitik, Foroko koordinatzaileek euren, Kanpo Gaietako Ministerioak aginduta, kanzelatu zuten Foro hori, zeina sortu baitzen lan-sareak sortzeko, gure herri mailako ahalegin txikiak elkarrekin koordinatzeko eta, hartara, gure ekintzei oihartzun, kohesio, eta indar gehiago emateko. Sionismoak duela 60 urte Palestinan sortu zuen arazoak ez dio eragiten bakarrik Palestinari, eskualde osoari baino, eta horregatik konponbidea ezin da izan lokala, eskualde osokoa baino, hots, globala.

Arrazoi horientatik sostengatu genuen lehen Foro hutsegin hura eta arrazoi berdinentatik sostengatzen dugu orain Bilboko II. Ekimena. Elkartasun Sareko kideok uste dugu gizarte zibilak baduela asko esateko, eskaintzeko eta exigitzeko. Errotik sinesten dugu bakar-bakarrik sentsibilizazio eta salaketa lana eginez, koordinatuta eta elkartuta lan eginez lortuko dugula noizbait denon artean bakea eta justizia Ekialde Ertainarentzat.

Zer da Palestinaren Okupazioaren Aurkako Estatuko Sarea?

Palestinaren Okupazioaren Aurkako Estatuko Sarearen asmoa da gizarte zibila mobilizatzea eta gure gobernuak Ekialde Ertainean duen politika alda dezan.

LIDÓN SORIANO*

Palestinaren Okupazioaren Aurkako Elkartasun sarea 2005eko martxoaren 5 eta 6an sortu genuen Madrilen egindako batzar batean. Batzar horretara bildu ginen Espainiako estatuko 41 elkartasun erakundetako 66 lagun. Sarea sortzea erabaki genuen ikusi genuelako elkartasun talde mordo bat zeudela hantzen barreiatuak (Catalunyan, Andaluzian, Euskal Herrian, Madrilen, Kantabrian, e.a.), denak antzeko lana egiten zutela, ikuspegi politiko berdintza zutela, baina nola baliabide gutxi zituzten maila lokaleko lana -auzo mailakoa ez esatearren- baizik ez zutela egin eta gizarte oso eragin eta oihartzun murrizta zutela.

Gure asmoa da gizarte zibila mobilizatzea eta haren bidez presioa egitea gure Gobernuari Ekialde Ertainean aplikatzen duten politika alda dezaten eta bete eta betearazi dezaten euren sortu eta sinatutako (eta, hortaz, euren bermatu beharrek) Nazioarteko Legeria. Beraz, 2005ean ulertu genuen gure helburuak lortzeko bide bat baino ez zegoela: geure esparru txikietan egin genuen lana elkarrekin koordinatuz denon indarrak batu eta denok elkarrekin bultzatzea egin hartua genuen xedeari buruz.

Sare hau are sendoagoa bihurtu da nazioartean sortu diren beste sare batzuei esker, haien laguntzarekin gure lanak oihartzun eta indar gehiago hartu

Gutxieneko puntu batzuk adostu ditugu eta horien inguruan ari gara denok elkarrekin lanean, gero eta irmoago eta sendoago

baitu. Lan zail eta neketsua da, sare barruan sentsibilitate ezberdinak daudelako, baina gutxieneko puntu batzuk adostu ditugu eta horien inguruan ari gara denok elkarrekin lanean, gero eta irmoago eta sendoago. Hona hemen oinarritzko puntu horiek:

1- Israel eta Palestinaren arteko gatazka ez da berdinen arteko gatazka bat eta bere sustraia Palestinaren okupazio militarra da.

2- Israelek proiektu sionista bultzatzen du eta, hortaz, bera da Ekialde Hurbileko bakerako mehatxu handiena.

3- Exigitzen diogu Israelgo Estatuari bete dezala, eta Nazioarteko Komunitateari Israeli betearaz diezaiola, Genevako Laugarren Konbentzioa, bereziki kolonia guztiak eraisteari dagokionez.

4- Exigitzen diogu Israeli bete dezala, eta Nazioarteko Komunitateari Israeli betearaz diezaiola, giza-eskubideei buruz indarrean dauden Gutun eta Itunak.



L.M. Enean

Azzouneko umeak. AICeren arabera 340 adin txikiako palestinarrek Israelgo espetxetan preso daude.

25 ELKARTE

Hona hemen Palestinako Okupazioaren Aurkako Elkartasun sarea osatzen duten erakundeak:

- 1.- Plataforma Solidaridad con Palestina (Sevilla)
- 2.- Derechos Humanos de Andalucía
- 3.- Asociación Hispano Palestina Jerusalén (Madrid)
- 4.- ISM Cataluña / Valencia
- 5.- Asociación Paz Ahora
- 6.- CSCA (Comité de Solidaridad con la Causa Árabe)
- 7.- Mujeres por la Paz - Acción solidaria con Palestina (Canarias)
- 8.- Palestinarekin Elkartasuna (Euskadi)
- 9.- Sodepaz
- 10.-

5- Israel eta Palestinaren arteko gatazkarekin zerikusia duten presoak gure ustez preso politikoak dira eta, hortaz, askatu beharrik.

6- Exigitzen dugu bete daitezela Nazio Batuen Erakundearen ebazpenak, batez ere ondoko hiru gauzok eskatzen dituztenak:

a) Israel erretiratzea 67an okupatutako lurraldeetatik eta Estatu Palestinar duin eta bideragarri bat sortzea.

b) Jerusalem izatea etorkizuneko Palestinako Estatu horren hiriburua

c) Aitortzea errefuxiatu palestinar guztiak sorterrira itzultzeko eskubidea.



- 11.- Sodepau.
- 12.- Ecologistas en Acción (Madrid, Valladolid)
- 13.- Xarxa d'enllaç amb Palestina (Barcelona)
- 14.- Boicot. Preventiu (Barcelona)
- 15.- Xarxa Solidaridad Palestina (Valencia)
- 16.- Asociación Paz con Dignidad
- 17.- Interpueblos

- 17.- (Cantabria) Asociación Al Quds,
- 18.- (Málaga) PCE 19.- MEWANDO (Euskadi)
- 20.- Komite Internazionalistak (Euskadi)
- 21.- Red de Jóvenes Palestinos
- 22.- Grupo de ONGs por Palestina (Plataforma 2015 y Más eta Federación de Asociaciones de Defensa y Promoción de los Derechos Humanos - España)
- 23.- Red Euromediterránea de Cooperación al Desarrollo.
- 24.- Comunidad Palestina de Catalunya.
- 25.- Comunidad Palestina de Canarias.

Printzipio horietan oinarriturik plazaratzen ditugu gure errebindikazio nagusiak:

- Zigorrek ezarri Israeli Nazioarteko Legeria urratzeagatik

- Moztu arma salerosketa guztiak Israelen.

- Eten Europako Batasunak Israelen sinatua duen Elkartasun Akordioa.

*Komite Internazionalistak eta Palestinaren Okupazioaren Aurkako Estatuko Sareko kidea

www.elgospigall.com

PALESTINE NORTH SHEET
SCALE 1:300000

النكبة
AL NAKBA
(HONDAMENDIA)
1948 · 2008

Red Solidaria
contra la
Ocupación
de Palestina

MEWANDO

EUSKO JAURLARITZA
GOGIENO VASCO

www.nodo50.org/causapalestina

PALESTINE SOUTH SHEET
SCALE 1:300000

60 URTEKO
APARTEID-A,
GARBIKETA-ETNIKOA ETA
HIRUROGEI URTE
PALESTINARIK GABE



Israelgo militarrek Hebroneko alde zaharreko kaleetatik.

Deir Yassin-en sarraskiaren testigantza

1948an milizia juduek eginiko garbiketa etnikoaren adibide paradigmatikotzat jo dezakegu.

JAKUES RINIOR

Jarraian datorren testua da Jacques Riniorek, 1948an Nazioarteko Gurutze Gorriak Palestinan zeukan ordezkariak, egun haietan ikusi zituen gertakariei buruz utzitako lekukotasuna. Ohargarria da nola dioen kriminal haietako batzuk nazien kontzentrazio eremuetatik bizirik ateratako juduak zirela. Palestinako garbiketa etnikoa denok pentsatzen dugun bezalaxe gertatu zen eta ez da bukatu, indarrean dago beti: Jenin 2003an, Gaza azken urtean...

Herrixkako sarreran zentinelatiko batek esan zidan preso hartzen ninduela eta beste batek eskua tinkatu zidan eta, alemanez mintzatuz -ez baitzekien ez ingelesez ez frantsesez-, esan zidan zeinen pozik zegoen Gurutze Gorriko ordezkari bat ezaguturik. Esan zidan bera ere nazien kontzentrazio eremu batean preso egona zela eta Gurutze Gorriari esker atera zela bizirik.

Irgun taldeko kideak aurreko gauetan heldu ziren. Herrira sartu ziren megafonoz herritar guztiei hots eginaz ateratzeko etxetik eta errenditzeko. Alderdi politikoetako kide batzuk errenditu ziren eta preso altxatu zituzten. Errenditu ez zirenak, aldiz, "merezi zutena" jaso zuten, nire solaskideen hizkuntzan esateko. Trufaire esan zidaten gorpuk aurkitzen banituen era-



man nitzakeela, eta bukatzeko hau: "hemen ez da zauriturik".

Soldadu judu uniformedunak baizik ez nituen ikusi, eta baziren tartean nerabeak eta emakumeak, denak ere errebolberrak, metrailadoreak, granadak eta aiztoak zituztela. Neska nerabe batek trionfan zerabiltzan, bere balentrien lekuko noski, odolez bustitako aizto itzel bat. Itxura guztien arabera talde hura garbiketa misioaren beso exekutorea zen, eta bazirudien ase on bat hartua zela bere lana gogoz eta artaz eginik.

Etxe batera sartu nintzen. Etxeko lehenbiziko gela ilunpean eta hutsik zegoen; alboko gelan, altzari porroskatu eta lapurreta seinaleen artean, gorpu batzuk aurkitu nituen, izotza bezain hotzik eta ondo-ondotik tiratutako tiroz josiak. Beste gorpuk batzuk txiki-txiki eginda zeu-

den, bonba ezteandek lehertuak, beste batzuk oraino aizto ukaldiz azkenduak. Etxe hartatik ateratzera abiatu nintzanean hasperen bat iruditu zitzaidan eta gorpu hoztuen artean arakatzeko hasi nintzen harik eta noizbait oin txipi bat aurkitu nuen arte, artean epeltasun pittin bat geratzen zitzaiona. Hamar urteko neskato bat zen, bonbek larriki zauritua baina bizirik. Saiatu nintzen nirekin eramaten baina ofizialak debekatu egin zidan. Eskatu nien langileei jaso zitzaizela etxe hartako gorpuk eta ni beste etxetara abiatu nintzen nire lanarekin jarraituz. Ikuskizun danteskoa etxe guztietan errepikatzen zen. Pertsona bi baino ez nituen aurkitu bizirik. Bata, arestian esandako neskatua. Bestea, amona xahar bat, 24 orduan egon zena hil plantak egiten eta horregatik salbatu zena.



PALESTINAKO GIZARTE ZIBILAREN ELKARTASUN EKIMENAREN KOORDINAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA BILATZEN DUEN MEWANDO SAREAK EGIN DU LAN HAU, EUSKO JAURLARITZAKO GARAPENERAKO ZUZENDARITZAREN LAGUNTZAREKIN (INFORMAZIO GEHIAGO: MEWANDO@MEWANDO.ORG).